



Malen Jauregialtzo
Aixerrota BHI, 13-14

Aurkibidea

Joan Mari Irigoien 2

Sarrera 2

Babilonia

• Kokapena 2

• Edukia 3

○ Gaia 3

○ Argumentua 3

○ Istorioa 3

• Egituraketa 4

• Pertsonaiak 5

○ Baliabideak 6

• Iritzia 6

• Bibliografia 8

Joan Mari Irigoien

Joan Mari Irigoien, Altzan (Gipuzkoa) 1948an jaiotako idazlea da. Txikitatik hasi zen idazten eta ingeniari-tza ikasi bazuen ere, inoiz ere ez zuen arlo horretan lan egin. Errealaren bigarren taldean jokatu zuen, egineko zuzentzaile izan zen eta irakasle lanetan ere aritua da. Nobelak, ipuinak eta telebistarako testuak idatzi ditu beste genero batzuen artean. Euskal literaturako lan handiak egin ditu, hala nola: *Oilarraren promesa* (1973) eta *Lur bat haratago*.

Sarrera

Babiloniak izen bereko baserriaren istorioa kontatzen digu. Eleberri historikoa da eta Euskal Herriko historiaren hainbat alor aipatzen ditu. Babilonian bizi diren Garayaldetarren gorabeherak dira nagusi eleberrian: bi anaien arteko norgehiagokak, ezinikusiak, maitasun kontuak... Hiru narratzaile ezberdin daude eta horrek istorioa interesgarriagoa egiten du.

Babilonia

Kokapena

Babilonia Euskal Herrian XIX. mendean dago kokaturik. Pertsonaiak, orduko Euskal Herriko biztanle arruntak dira, baserritarrak. Antzinako landa eremuko hainbat ohitura eta esaera agertzen dira nobela irakurri heinean eta horrek bizimodu zahar haren kutsua ematen dio eleberriari; adibidez maiorazkoen legea edo hildakoekin eta Lurruspeko Marirekin hitz egiteko ahalmena edukitzea.. Horrez gain, herrien izenak benetan existitzen ez direnenak izan arren (Bedania, Ollaran, Itzurun...), agertzen diren pertsonaia eta gertaerak garai hartan benetan izandakoak dira, esaterako Karlistadak, trenbidearen eraikuntza eta O'Donnell jenerala. Garai hartan Euskal Herriko bizimodua baserrikoa zen, seme-alabak edukitzeko ezkontzen ziren, baserrirako eskulan gehiago izateko eta mutilen artean indarra eta gaitasun fisikoak gorai patzen ziren. Gainera, baserriaren izen onari eutsi behar zitzaion eta belaunaldiz-belaunaldi familiakoa izan zen armarrria "maite" ere bai.

Edukia

Gaia

Babilonia baserria: Garayaldetarrek bi edo hiru belaunalditan bizitako gorroto, maitasun eta norgehiagokak XIX. mendeko Euskal Herrian.

Argumentua

Garayalde familiaren istorioa kontatzen da, Babilonia baserriaren jabeena, alegia. Garayaldetarrentzako, euren lurrek eta baserriak izugarritzko garrantzia dute eta istorioaren ardatza, bi anaia bikiren norgehiagoka da. Txikitatik ezinikusia eduki badute ere, euren lehiakortasuna handituz doa denborak aurrera egin ahala eta hainbat kasutan egin beharko diote aurre batak besteari, hala nola maiorazkoak edo emakume bat lortzeko borrokan, eta baita gerran ere, batek karlisten eta besteak liberalen alde egiten baitu.

Istoria

Kaxiano, Klemente, Trinidad eta Feliziano Zipriano Garayalderen lau semeak ziren, Babilonian bizi zen familia hain zuzen ere. Trinidad eta Feliziano bikiak ziren eta indartsuak eta zaharrenak izanik, euren artean izugarritzko norgehiagoka zegoen lurraren maiorazkoa nork hartuko, Horrez gain, bai aitak eta bai osaba Demetriok, gerran aritutakoa hau, probak jartzen zizkieten indartsuena nor zen ikusteko eta horrek bien arteko ezinikusia handiagotu zuen. Feliziano, anaia baino lehentxeago jaio zenez gero, lurraren maiorazkoa zen. Hala ere, herriko apaizak hala aholkatuta Ziprianok maiorazkoa baserri ondoko alper harria jasotzen zuena izango zela maiorazkoa esan zuen, Trinidadok altxakozuela jakinik. Felizianok, hau gertatu ondoren, izugarritzko gorrotoa hartu zion anaiari, gainera, Trinidad Moabe baserriko Margarirekin zen ezkontzekoa, Felizianok maite zuen emakumearekin.

Babiloniako armarran otso bat eta koroa bat agertzen ziren, koroak maiorazkoa irudikatzen zuelarik. Felizianok, maiorazkoa galduta

zeukanez, otsoa botatzen bazuen maiorazkoa ere berreskuratuko zuela pentsatuta, ardi larruz jantzita otsoa engainatu eta hil egin zuen, hala ere ez zuen horrekin maiorazkoa lortu. Beraz, hirira joan zen lanera baina hirian irabazten zuen dirua nahikoa iruditu ez eta Ameriketara joatea erabaki zuen, aberastera. Feliziano Ameriketara zegoen bitartean bere aita, Zipriano, hil egin zen eta Trinidado bihurtu zen baserriko jabe.

Feliziano, aberastuta bueltatu zen Ameriketatik, eta Babiloniaren ondoan zegoen Azaola baserria erosi zuen, erreka bestalde zegoena. Hala ere, erreka bestaldeko lur haietako batzuk Garayaldetarrenak zirenez, Trinidadorekin apustua egin zuen, lur haien jokoan jarrita. Trinidadok galdu zuen duelua eta Feliziano bera baino gehiago sentitu zen behingoagatik.

Feliziano, ez zen ase ordea. Egun batez, Trinidado kanpoan zela, Babiloniara joan zen eta Margari bortxatu eta haurdun utzi zuen. Kaxianok anaia hori egiten ikusi eta Trinidado kontatu zion. Trinidadok, hori jakin bezain laster duelura deitu zuen anaia, baina hil arteko duelura. Trinidadok irabazi zuen duelu hori, baina Felizianori bizitza barkatzera zihoan. Momentu horretan, ordea Kaxiano, gerran ibilia, igitaia sartu zion anaiari eta hil egin zen.

Trinidado gerran hil zen, eta Margariren umea jaiotzen denean, Margarik askan ito egiten du. Gero, Margarik bere buruaz beste egiten du baserriari sua emanaz. Klemente ere, trenari aurre egin nahian hiltzen da eta Kaxiano bakarrik geratzen da. Horregatik erabakitzen du bere familiaren istorioa eskuizkribu batean idaztea.

Egituraketa

Kontaketa, zatika egin dago, hiru kontaketaile desberdin tartekatzen ditu eta bakoitzak pertsonaia bati dagokion istorioa kontatzen du, denak batuz Babiloniako istorioa osatzen delarik. Ez dago kronologikoki ordenaturik, izan ere, bururatu heinean kontatzen ditu pasadizoak baina hariari eutsiz eta betiere ulergarria den eran kontatuta. Gainera irakurlea harrapatzeko eta gertatuko dena iragartzeko gertakizun garrantzitsuenak behin baino gehiagotan kontatzen ditu, ikuspuntu ezberdinetatik.

Pertsonaiak

- **Trinido.** Ziprianoren seme bikietako bat da. Indartsuena eta horregatik lortzen du baserriaren maiorazkoa. Margariren senarra da. Pertsona oso lehiakorra da baina bere anaiak ez bezala bihotz ona dauka eta bere baserria maite du.
- **Feliziano.** Trinidoren anaia bikia. Lehenengo jaioa izanik, berari legioke etxearen maiorazkoa baina azkenean anaiak lortzen du berak nahi duen guztia. Ameriketara joaten da eta handik aberastuta itzuli. Ez du baserriarekin eta familiarekin inolako harremanik izan nahi. Margari bortxatzen du. Pertsona bihozgabea eta gaiztoa da.
- **Zipriano.** Bikien eta beste bi semeren aita, etxearen maiorazgoa izan zena. Honek eta Demetriok bultzatzen zituzten bikiak norgehiagokara.
- **Klemente.** Ziprianoren beste seme bat, gor-mutua da eta Kaxianorekin harreman berezi bat duela esan liteke. Jendea bera hor dagoela konturatzen ez bada ere bera ondotxo konturatzen da baserriko familiaren egoeraz.
- **Kaxiano.** istorioaren narratzaileetako bat da. Ziprianoren seme hau ere. Familiako ahulena da eta beti Klementeren ondoan bilatzen du babesa. Klemente anaia asko maite du, batzuetan baita anaia bat baino gehiago maite ere. Hitz egiteko eran nabaria da oso beldurtia dela.
- **Demetrio.** Ziprianoren anaia, gerran ibilia, bere istorioekin ilobak liluratzen zituen. Felizianori maiorazkoa ez izatea ere ona izan zitekeela irakatsi zion, bera bezala teniente edo are gehiago kapitaina ere izatera iritsiko zela esaten zion. Felizianorekin karlisten alde gerran borrokatzen duenean zalditik erorita hil egiten da.
- **Bernardo.** Ziprianoren anaia. Gerran besoa galdu zuen eta harrezkero ez zaizkio gerra kontuak gustatzen. Etxeko zentzudun bakarrenetakoa ematen du.
- **Margari.** Moabeko Roxaliren biloba. Amonak hilekin komunikatzen irakatsi zion eta Lurruspeko Marirekin hitz egiten ere bai. Babiloniako maiorazkoarekin, Trinidorekin ezkontzen da.
- **Lurruspeko Mari.** Euskal mitologiaren funtsezko pertsonaia. Liburuan narratzaile gisa jarduten du, bigarren pertsonan Margariri ametsetan zuzenduta.

Baliabideak

Idazleak, istorioa hiru narratzaile erabiliz kontatzen du. Lehenengo narratzailea, narratzaile objektiboa dugu, hau da, iritzirik azaldu gabe gertakizunak hirugarren pertsonan kontatzen dizkigun narratzaile orojakile bat. Bigarren narratzailea, Lurruspeko Mari da, Euskal Herriko mitologiako pertsonaia bat, bigarren pertsonan kontatzen du istorioa, Margariri hizketan ariko balitz bezala. Azkenik, Kaxiano, seme ahulena, ere narratzailea da, ordurarte barruan gordetako sentimendu denak kontatzen ditu eskuizkribu batean eta bere iritzia eta bere segurtasun eza adierazten ditu istorioan denborak aurrera egiten duen heinean; lehen pertsonan idazten du eta gertakizunak gogora datozkion ordenan kontatzen ditu.

Joan Mari Irigoienek, zuka eta hika erabiltzen ditu istorioan, gainera euskara jaso eta nafarra dirudien euskalki bateko hitzak sartzen ditu (“izanen”). Horrez gain, hainbat bertso zati eta esaera biltzen ditu, baita naturari zenbait aipamen egin ere. Honek guztiak obrari garai hartako kutsua ematen dio eta irakurlea istorioan barneratuago sentitzen da arrazoi horregatik.

Iritzia

Babilonia, eleberri historiko bat da, Euskal Herriko historiaren atal asko aurki daitezke bertan. Irakurle adituari, eleberria entretenigarria eta ulerterraza suerta dakioke hasieratik, gai horretaz gutxi dakien irakurleak ordea, zenbait geldialdi egin beharko ditu eta istorioaren haria harrapatzeko zailtasun gutxi batzuk izan ditzake hasieran. Hala ere, Euskal Herriko XIX. Mendeko ohitura, bizimodu eta historia ikasteko parada bikaina eskaintzen digu liburu honek.

Liburuaren hasieran, hiru narratzaile guztiz desberdinekin topo egiten du irakurleak. Nahastuta gera daiteke eta euren arteko zerikusia aurkitzea zaila egingo zaio baina eleberrian aurrera egin ahala konturatzen da istorio beraren zati desberdinak direla hiru narratzaile desberdinen kontakizunak tartekatuta.

Pertsonaien izenak ere nahasgarriak gerta daitezke hasieran irakurlearentzat, asko eta familia bereko belaunaldi ezberdinetako kideak izateaz gain, pertsonaiek garai hartako izenak dituztenez gero, izen horiek guztiak ordenatzeko eta bakoitza bere lekuan jartzeko ahaleginetan aritzen da hasieran.

Behin istorioaren nondik norakoak ulertuta eta nobelan murgildurik gaudenean beste arazo batekin egiten dugu topo. Hizkuntza. Idazleak, garai hartako hitz eta esaldi asko erabiltzen ditu eta askotan beharrezkoa izaten da, oso maila altua ez duen irakurle batentzat, hiztegian begiratzea edo esaldia behin baino gehiagotan irakurtzea ondo ulertu ahal izateko.

Hala ere, zailtasun guzti hauek gaindituta ditugunean, konturatzen gara, istorio paregabe baten aurrean gaudela, garai hartako bizimoduaren isla garbia da eta istorioan barneraturik sentitzen gara, han gertatzen dena guri ere, jazotzen ari balitzaigu bezala. Pertsonaien deskribapenak bikainak dira eta ezagutzen ditugunaren sentsazioa ematen du horrek.

Joan Mari Irigoienek nobela honekin transmititu nahi izan zuena transmititzea lortzen du. XIX. Mendeko bizimodua eta errealitate eta magikoaren arteko berdintasun hori.

Bibliografia-webgrafia

- *Babilonia*, Joan Mari Irigoien. Elkar.
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Joan_Mari_Irigoien
- <http://atalak.eus/ikaskela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>
- <http://www.compartelibros.com/autor/joan-mari-irigoien/1>
- [http://eu.wikipedia.org/wiki/Babilonia_\(liburua\)](http://eu.wikipedia.org/wiki/Babilonia_(liburua))
- <http://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=95>